

**DEIALDIA, HAUR HEZITZAILE LANPOSTUA BETETZEKO IZANGAIEN ZERRENDA  
HAUTAPROBEN BIDEZ OSATZEKO, BAZTANGO UDALAREN JABETZAKOA DEN LIXURA  
BAZTAN S.L. UDAL MERKATARITZA SOZIETATEAN SORTZEN DIREN BEHARRAK BETETZEKO.**

Honako hauek izanen dira deialdiaren arauak:

**OINARRIAK**

**Lehenengoa.** – HAUR HEZITZAILE lanpostua betetzeko izangaien zerrenda hautaproben bidez osatzeko deialdia iragartzen da, Lixura Baztan S.L. udal merkataritza-sozietatean sortzen diren beharrak betetzeko, bai aldi baterako, bai sozietate publiko horretan sor daitezkeen plaza eta lanpostu huts berrietarako, unean-unean indarrean dagoen araudian jasotako birjarpen-tasen arabera.

**Bigarrena.** – **Lan-baldintzak, egokitzapen-aldia eta indarraldia:**

Enplegu-poltsa batean sartzea eskaintzen da, gaur egun kudeatzen diren zerbitzuetan eta etorkizunean Lixura Baztan, s.l. udal enpresa publikoak kudeatutako zerbitzuetan sor daitezkeen aldi baterako beharrian funtzional eta antolamenduzkoak edo, hala badagokio, mugagabeak betetzeko.

Hautatutako pertsoneri lanaldi osoan edo partzialean lan egiteko deia egin ahal izanen zaie, une bakoitzean zerbitzuak dituen beharren arabera.

Lixura Baztan, S.L.k kudeatutako zerbitzuei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboetan xedatutakoaren eta araututakoaren arabera arautuko dira lan-baldintzak; Langileen Estatutuaren arabera, Lixura Baztan, S.L.ren ordezkariak eta Enpresa Batzordeak sinatutako Hobekuntza Itunaren arabera eta tokiko sektore publikoko erakundeei aplikatu beharreko administrazio-araudiaren arabera.

Soldata eskatutako eginkizunen eta baldintzen arabera izanen da, enpresan ezarritako baremoaren arabera.

24 asteko probaldia.

Deialdi honen emaitzak indarrean egonen dira bertze deialdi bat egin arte.

**Hirugarrena.** – **Parte-hartzaileen betebeharrak.**

3.1. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiarra, Europar Batasuneko estatu kide bateko herritarra edo Europako Erkidegoak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuen aplikazio-eremuan dagoen estatu bateko herritarra izatea, langileen joan-etorri askea aintzat hartuta.

Parte hartu ahal izanen dute, halaber, espainiarren ezkontideek, Europar Batasuneko estatu kide bateko nazionalak eta aipatutako nazioarteko itunen aplikazio-eremuan dauden estatuetakoz nazionalak, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta ezkontidearenek ere, legezko banantzerik ez badago, hogeita bat urtetik beherakoak badira edo haien kontura bizi diren adin horretatik gorakoak badira.

b) Hamasei urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.

c) Haur Hezkuntzako goi-mailako teknikariaren titulua, Haur Hezkuntzako maisu-maistraren lanbidean aritzeko gaitzen duen gradu-titulua, Haur Hezkuntzako espezialitateko maistra-titulua edo haur-hezkuntzako maisu-maistraren lanbidean jarduteko gaitzen duen titulu baliokidea izatea, edo eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean lortzeko moduan egotea.

Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen egiaztageria eduki beharko da.

d) Dagozkion eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren gaitasun fisiko eta psikikoak izatea.

e) Funtzio publikoak betetzeko ezgaituta edo etenda ez egotea, eta administrazio publiko baten zerbitzutik bereizita ez egotea.

f) Espainiar nazionalitatea ez duten izangaiek zinpeko aitortpena edo promesa aurkeztu beharko dute, beren estatuan Funtzio Publikoan sartzea eragozten duen diziplina-zehapenik edo zigor penalik ez dutela ziurtatzen duena.

g) Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legearen arabera, adingabeekin ohiko harremana duten lanpostuak betetzeko baldintza da sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik edo gizakien salerosketaren aurkako delituren batengatik epai irmo bidez kondenatua ez izatea.

h) Euskara jakitea. C1 tituluaren ordezkartzaren bidez egiaztatua (EGA edo baliokidea).

3.2. Aitzineko paragrafoetan eskatutako titulazio-betekizunak hautaketa-prozesuan egiaztatu beharko dira.

3.3. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna ez ezik, deialdia egiten den unean eta kontratazio-aldian ere bete beharko dira aitzineko baldintza horiek.

#### **Laugarrena. – Eskabideak aurkezteko epea.**

Eskabideak aurkezteko epea 10 egun naturalekoa izanen da, deialdi horiek Baztango Udalaren iragarki-oholean eta [www.baztan.eus](http://www.baztan.eus) web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Bertan, deialdien testu osoa agertuko da.

#### **Bosgarrena. -Instantziak.**

Deialdian parte hartzeko eskabideak Baztango Udaleko Erregistro Orokorrean (Foruen Plaza) aurkeztu beharko dira.

Eskabidea posta-bulego batean aurkeztea erabakitzen bada, gutun-azal irekian egingen da, posta-zerbitzuko langileek data eta zigilua jar ditzaten, ziurtatu aitzinetik. Eskaera Baztango Udaleko Erregistroan zuzenean aurkeztu ez bada, eta eraginkortasun administratiboko arrazoiengatik, horren berri eman beharko zaio Udalari, [lixura@baztan.eus](mailto:lixura@baztan.eus) helbide elektronikoaren bidez, betiere eskabideak aurkezteko ezarritako epearen barruan.

Eskaera-orriak II. eranskin gisa argitaratutako ereduaren arabekoak izanen dira, eta Udalaren bulego orokorretan eskuratu ahal izanen dira, eta Internet bidez, [www.baztan.eus](http://www.baztan.eus) helbidean. Eskabideetan, izangaiek adierazi beharko dute eskabidean eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela.

Izangaiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte eskabidearekin batera. Nolanahi ere, kontratatzeko deitzen dietenean, dokumentazio originala edo kopia konpultsatua edo behar bezala autentifikatua aurkeztu beharko dute, indarrean dagoen legediaren arabera:

- Izangaiaren nortasuna eta nazionalitatea egiaztatzen duen NANaren edo agiriaren fotokopia, eta, hala badagokio, deialdiaren 3.1.a) oinarrian eskatzen diren nazionalitate- eta ahaidetasun-betekizunena.
- Haur Hezkuntzako goi-mailako teknikariaren tituluaren fotokopia, Haur Hezkuntzako maisu-maistraren lanbidean aritzeko gaitzen duen gradu-tituluarena, Haur Hezkuntzako espezialitateko maisu-maistraren tituluarena edo haur-hezkuntzako maisu-maistraren lanbidean jarduteko gaitzen duen titulu baliokidearena.
- Euskarazko gaitasun-tituluaren fotokopia (EGA) edo baliokidea, hala badagokio.
- Oinarri hauetako 7.3.2 puntuan adierazitako merezimenduen fotokopia, hala badagokio.

Agiri horiek aurkezten ez dituztenak, hala badagokio, ez dira deialdian onartuko, eta haien jarduera guztiak baliogabetuko dira, parte hartzeko eskabidean faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizunari kalterik egin gabe.

### **Seigarrena. – Izangaiek onartzea. Behin-behineko eta behin betiko zerrenda.**

Eskabideak aurkezteko epea igarotakoan, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda argitaratuko da Baztango Udaleko iragarki-oholean (Elizondoko Foruen plaza) eta [www.baztan.eus](http://www.baztan.eus) webgunean.

Egun horretatik aitzinera, eta hurrengo hiru egun balioduneko epearen barruan, baztertutako izangaiek erreklamazioak aurkeztu edo eskabideko akatsak zuzendu ahal izanen dituzte Baztango Udalean, Lixura Baztan, s.l. udal sozietateari zuzenduta.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta horiek ebatzi ondoren, administrazio kontseiluko buruak Lixura Baztan, S.L.k onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartuko du, eta Baztango Udaleko iragarki-oholean eta [www.baztan.eus](http://www.baztan.eus) webgunean

argitaratzeko aginduko du, deialdi honetan aurreikusitako hautaprobaren data eta lekuarekin batera.

Baztertutako hautagairik ez badago, zuzenean onartuko da behin betiko zerrenda, eta Baztango Udaleko iragarki-taulan eta [www.baztan.eus](http://www.baztan.eus) webgunean argitaratuko da, hautaprobaren data eta tokiarekin batera.

Onartuen zerrendetan agertzeak ez du erran nahi interesatuei deialdietan eskatutako baldintzak betetzen dituztela aitortzen zaienik. Izangaiek aurkeztu beharreko agiriak edo Administrazioaren esku daudenak aztertuta ondorioztatzen bada ez dutela eskatutako betekizunen bat, deialdietan parte hartzetik erator daitezkeen eskubide guztiak galduko dituzte interesdunek.

### **Zazpigarrena. – Hautaketa-prozesuaren garapena eta balorazioa.**

7.1. Hautaketa-prozesua bi fasetan egingen da: lehenik, lehiaketa-fasea egingen da, eta, ondoren, oposizio-fasea, oinarri hauetan adierazitako moduan.

7.2. Oposizio-lehiaketa iragarki-taulan eta udalaren web orrian ([www.baztan.eus](http://www.baztan.eus)) iragartzen den egunean, orduan eta lekuan hasiko da, eta oposizio-probak 2022ko azaroan hasita aurreikusita dago.

Ondoren, epaimahaiak jendaurrean jarriko ditu gainerako probak egin direla adierazten duten iragarpenak. Lehiaketa-oposizioaren azken kalifikazioa puntuazioak batuta ateratzen dena izanen da.

#### 7.3. Lehiaketa-fasea.

7.3.1. Epaimahaiak alegatutako eta behar bezala justifikatutako merezimenduak baloratuko ditu, baremo honen arabera. Epaimahaiak edozein unetan eskatu ahal izanen ditu lehiakideek alegatutako merezimenduei buruzko argibideak eta datu osagarriak.

7.3.2. Merezimenduen baremoa:

a) Nafarroan udal-titulartasuneko haur-eskola batean emandako zerbitzu-urte bakoitzeko: puntu 1 eskola-urteko. Lan egindako hilabete bakoitzarengatik, eskola urtearen zati proportzionala baloratuko da.

Edozein kasutan, 5 puntuko muga ezartzen da atal honetarako.

b) Ikastetxearen pedagogiarekin, Piklerrekin eta Malaguzzi-rekin lotutako 0-3 zikloko prestakuntza espezifikoetan parte hartzeagatik, betiere lanpostuaren eginkizunekin lotuta eta behar bezala egiaztatuta badaude: 0,1 puntu gutxienez 10 irakastorduko prestakuntza bakoitzeko; 0,5 puntu prestakuntza bakoitzeko, gutxienez 30 eskola-ordukoa; 5 puntu gutxienez 100 eskola-orduko prestakuntza bakoitzeko.

5 puntuko muga ezartzen da atal honetarako

7.3.3. Lehiaketa-aldiari gehienez ere 10 puntu emanen zaizkio.

7.3.4. Lehiaketa-fasea amaitzean, iragarki oholean eta Baztango Udalaren web orrian argitaratuko da izangai bakoitzak lortutako puntuazioa.

#### 7.4. Oposizio-fasea.

7.4.1. Lehenengo ariketa teoriko-praktikoa: 25 galderako galdera-sorta bati idatziz erantzun beharko zaio. Galdera-sorta horri erantzuteko aukera bat baino ez da baliozkoa izanen, deialdiko I. eranskineko gai-zerrendako gaii buruzkoa. Erroreak ez dira zigortuko. Lehenengo ariketa egiteko gehieneko denbora 35 minutukoa izanen da.

7.4.2. Bigarren ariketa: galdera teoriko bat garatzea. Ariketa egiteko gehieneko denbora ordu 1 izanen da.

Baloraziorako irizpideak: 0-3 zikloaren ezagutza, gaiaren aurkezpena eta justifikazioa, gaiaren azalpenean koherentzia, gaiaren sakontasun-maila, hizkuntza ulerkorra-argia eta erreferentzia bibliografikoak.

7.4.3. Hirugarren ariketa: deialdiaren xede den lanposturako berariazko egoera praktikoa bat ebaztea. Gehieneko denbora ordu 1 izanen da.

Balorazio-irizpideak honako hauek izango dira: 0-3 zikloaren ezagutza sakona, eguneroko pedagogiaren ezagutza, teoria eta praktika erlazionatzeko gaitasuna, azalpen argia eta koherentea, hizkuntza ulerkorra eta letra argiko aurkezpen ona, tatxonik gabea.

Oposizio-faseak I. eranskineko gai-zerrenda hartuko du erreferentziazat.

7.4.4. Hiru ariketak saio bakarrean egingen dira, batera. Lehenik, test motako zatia zuzenduko da, bigarrenik, garatu beharreko gai teorikoa, eta, hirugarrenik, kasu praktikoen zatia.

Testean ez da mozketak-notarik egonen ariketa gainditzeko edo suspenditzeko. Hirugarren ariketa zuzentzeko aitzinekoa gainditu beharko da. Bietan, gainditzeko eta puntuak batu ahal izateko, proban ezarritako puntuazioaren % 50 lortu beharko da gutxienez.

7.4.5. Oposizioko ariketen balorazioak 85 puntu lortu ahal izanen ditu gehienez, honela banatuta:

– Lehenengo ariketa: 25 puntu, gehienez.

– Bigarren ariketa: 25 puntu, gehienez

– Hirugarren ariketa: 30 puntu, gehienez.

Aitzineko probetan puntuaziorik onena lortu duten 10 pertsonak igaroko dira hurrengo probara, elkarrizketara.

7.4.6. Elkarrizketa. Ez da baztertzailerak izanen eta gehienez 10 puntuko balorazioa izanen du.

Elkarrizketa eta testa izan ezik, oposizioko gainerako ariketak baztertzailerak izanen dira. Baztertuta geratuko dira ariketa bakoitzari esleitutako gehieneko puntuazioaren erdia, gutxienez, lortzen ez duten izangaiak.

7.4.7. Probak deialdi bakarraren bidez egingen dira, eta hautagaiek Nortasun Agiri Nazionala edo legez parekatua eraman beharko dute. Bertaratzen ez diren pertsonak ezabatu egingen dira.

7.5. Proba bakoitzaren emaitzen aurka erreklamazioa aurkeztu ahal izanen da, 3 egun balioduneko epean, proba horiek webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik. Horretarako, instantzia bat aurkeztu beharko da Baztango Udalaren bulegoetan, Lixura Baztan, s.l. merkataritza-sozietateari zuzenduta. Erreklamazioak ebatzi ondoren, egin beharreko hurrengo probaren eguna eta lekua adieraziko dira, hala badagokio.

### **Zortzigarrena. – Epaimahai kalifikatzailea.**

Epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

Lehendakaria: Joseba Otondo Bikondoa, Lixura S.L.ko administrazio kontseiluko lehendakaria eta Baztango alkatea

Batzordeburua/ordezkoa: eskuordetzen duen pertsona.

1. batzordekidea: Jesus Maria Azkona Mendizabal, Plisti-Plasta, Lizarrako Haur Eskolako Eskolako zuzendaria

1. mahaikidea-ordezkoa: Eskuordetzen duen pertsona

2. batzordekidea: Eider Garde, Arbizuko Haur Eskolako zuzendaria

2. mahaikidea-ordezkoa: Eskuordetzen duen pertsona

3. kidea: Joseba Moreno Bidegain, Lixura S.L.ko administrazio kontseiluko kidea eta Baztango Udaleko zinegotzia

3. mahaikidea-ordezkoa: Eskuordetzen duen pertsona.

4. kidea: Anastasio Nagore Garralda, Lixura S.L.ko administrazio kontseiluko kidea eta Baztango udaleko zinegotzia

4. mahaikidea: -ordezkoa: Eskuordetzen duen pertsona

Epaimahai kalifikatzaileko kideek ezin izanen dute esku hartu, eta Lixura Baztan SLren Administrazio Kontseiluari jakinarazi beharko diote, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitako abstentzio-arrazoiak daudenean. Era berean, izangaiek epaimahaikideak errefusatu ahal izanen dituzte egoera hori gertatzen denean.

Legez ezarritako abstentzio- eta errefusatzeko-arrazoiak aplikatuz epaimahaiaren osaeran aldaketaren bat gertatzen bada, onartu eta baztertutako izangaien zerrendarekin batera

argitaratuko da.

Epaimahaia hautapoben aitzinetik eratu beharko da.

Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, gutxienez kideen gehiengo osoa bertan izan gabe, eta ezin izanen da jardun presidentea bertan egon gabe.

Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdien oinarrien interpretazioari eta aplikazioari buruz sor daitezkeen arazo guztiak.

Epaimahaiak aholkulari espezialistak sartu ahal izanen ditu probarako. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetara mugatuko dira, eta epaimahaiari lagunduko diote espezialitate horietan soilik oinarrituta.

### **Bederatzigarrena. – Gainditutakoen zerrenda.**

Proben kalifikazioa amaitu ondoren, epaimahaiak deialdian gainditu duten izangaien zerrenda argitaratuko du Baztango Udaleko iragarki-taulan eta [www.baztan.eus](http://www.baztan.eus) webgunean, lortutako puntuazio osoaren arabera.

Halaber, epaimahaiak Lixura Baztan S.L. enpresaren Administrazio Kontseiluari bidaliko dizkio, hark onar ditzan, hautaketa-prozesuaren espediente osoarekin batera.

Izangaien artean puntuazio-berdinketarik gertatuz gero, epaimahai kalifikatzaileak ebatziko du, honako irizpide hauen arabera: berdinketak zozketa bidez ebatziko dira, eta eragindako izangaia horretarako deituko dira.

### **Hamargarrena.- Izangaien zerrendak eta deialdia.**

Hautaketa prozesuaren espediente osoa jaso ondoren, izangai zerrendak onartuko dira, deialdi hurrenkeraren arabera. Zerrenda horiek Baztango Udaleko iragarki oholean argitaratuko dira eta [www.baztan.eus](http://www.baztan.eus) gunean.

Deialdia egiten den unean, izangaiek dokumentazio originala edo kopia konpultsatua edo kautotua aurkeztu beharko dute, indarrean dagoen legeriaren arabera, deialdi honetako bosgarren atalean aipatutakoa.

Era berean, kontratatzeko deia egiten den unean, izangaiek Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztu beharko dute, sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik epai irmoz kondenatu ez dutela eta gizakien salerosketagatik kondenatu ez dutela egiaztatzen duena.

Lan-poltsara deitzeko, III. eranskinean ezarritako araudia hartuko da kontuan.

### **Hamaikagarrena. - Legeria aplikagarria.**

Lanpostua betetzeko, Baztango Udalak Lixura Baztan, S.L. udal merkataritza-sozietateari

agindutako zerbitzu bakoitza aplikatzeko hitzarmen kolektiboan, Langileen Estatutuan, hura indarrean jartzen denean Hobetzeko Itunean (Lixura Baztan, S.L. enpresaren ordezkariak eta Enpresa Batzordeak sinatuta) eta tokiko sektore publikoko erakundeei aplikatu beharreko administrazio-araudian xedatutakoa bete beharko da.

**Hamabigarrena.- Aldi baterako kontrataziorako izangaien lan-poltsa bat ezartzea eta mugagabe bihurtzea.**

Onartutako hautagaitza guztiak enplegu poltsa batean sartuko dira, Lixura Baztan, s.l. udal sozietate publikoaren barruan sor daitezkeen beharrizan funtzional eta antolakuntzakoak betetzeko.

Era berean, Lixura Baztan s.l. sozietateak egiten duen deialdi hau baliagarria izan daiteke, udal-sozietateak hala nahi izanez gero, egiturazko beharrezanez erantzuteko, kontratu mugagabea da, eta ezin dira lanpostu mugagabeekin bete, legezko mugak direla-eta (birjarpen-tasa). Beraz, Lixura Baztan, s.l. enpresak aldi baterako kontratatuko du, eta kontratua mugagabe bihurtuko du legeriak baimentzen duen unean.

**Hamahirugarrena. - Datu pertsonalen tratamendua. Datuen tratamenduaren arduraduna**

Identitatea: Lixura Baztan S.L.

Posta elektronikoa: [lixura@baztan.eus](mailto:lixura@baztan.eus)

Helburua: Enplegu-deialdiak kudeatzea.

Oinarri juridikoa: Interesdunaren baimena.

**Datuen kontserbazio-denbora:** Datuak adierazitako helburua betetzeko behar den denboran gordeko dira, eta sozietateak tratamenduaren ondoriozko erantzukizunak izan ditzakeen bitartean biltegitratuko dira. Halaber, artxibo eta dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legean ezarritako kontserbazio-arauak bete behar dira.

**Datuen hartzaileak:** Datuak epaile eta auzitegiei laga ahal zaizkie, indarrean dagoen legedia betez, eta Baztango Udalaren webgunean eta iragarki-tauletan argitaratuko dira, deialdian adierazten den bezala.

**Eskubideak:** Interesdunek eskubidea dute datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta eramateko eskubidea erabiltzeko, bai eta datuen tratamendua mugatzeko eskubidea ere. Horretarako, lehenengo atalean adierazitako helbidera jo behar dute.

Era berean, eta bereziki bere eskubideak baliatzean erabateko gogobetetasuna lortu ez duela uste badu, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango dio kontrolerako agintaritzan nazionalari. Horretarako, Datuak Babesteko Espainiako Agentziari zuzendu beharko dio (Jorge Juan kalea 6, 28001 Madril).

Elizondo, Baztan Ibarra. – Lixura Baztan, s.l. Administrazio Kontseiluaren Lehendakaria  
Joseba Otondo Bikondoa



## **I. ERANSKINA.**

### **HAUR HEZITZAILEEN DEIALDIAREN GAI-ZERRENDIA**

#### GAI ARAUEMAILEAK

1. Martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretua.
2. 79/2012 Foru Agindua, abuztuaren 27koa.
3. 64/2013 Foru Agindua, uztailaren 5koa.
4. 101/2017 Foru Agindua, azaroaren 9koa, abuztuaren 27ko 79/2012 Foru Agindua aldatzen duena.
5. 61/2022 Foru Dekretua

#### GAI PROFESIONALAK

1. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua eta Proposamen Pedagogikoa.
2. Emmi Piklerren pedagogia: Kalitatezko zainketak, Jarduera autonomoaren balioa (mugitzeko askatasuna eta autonomiaren konkista), harreman pertsonal egonkorren balioa, eguneroko pedagogia, hezitzailearen jarrera hurrekin, helduaren eta hauraren arteko harremana autonomiaren lagungarri, behaketaren garrantzia eta ongizate fisikoaren garrantzia.
3. Loris Malaguzziren pedagogia: Haur irudia, Eskola irudia, Talde txikia, Dokumentazioa, Espazioaren garrantzia, estetika eskolan, Bikote hezitzailea, etengabeko prestakuntza eta behaketa ebaluazio gisa.
4. Atxikimendua: atxikimenduaren garrantzia, faseak, motak, ezaugarriak, funtzioak. Bowlbyren teoria.
5. Hezitzailearen funtzioa Haur Hezkuntzan. Gaitasunak, trebetasunak eta jarrerak. Hauraren eta hezitzailearen arteko harreman interaktiboak.
6. Hezkuntzan esku hartzeko printzipioak. Ikuspegi globalizatzailea. Ikaskuntza esanguratsua. Haurrak ezagutza eraikitzea eta hezitzailearen laguntza pedagogikoa.
7. Behaketan eta esperimentazioan oinarritutako metodologia. Epe laburreko eta luzeko lanaren programazioa. Egindako lanaren dokumentazioa.
8. Irakatsi eta ikasteko prozesuaren ebaluazioa. Ebaluazioaren funtzioa. Ebaluazio-estrategiak, -teknikak eta -tresnak. Behaketa ebaluazio-teknika gisa.
9. Ikerketa, haur hezkuntzako praktikatik abiatuta. Ikerketa hezkuntza-taldea hobetzeko estrategia gisa.

10. Bilakaera-une esanguratsuenak 0-3 urteko etapan.

11. Pentsamenduaren konplexutasuna. 0 eta 3 urte bitarteko haurren garapen kognitiboa eta motorra. Garapen sentsore-motorren eta kognitiboaren arteko harremana haurtzaroan. Garapen logiko-matematikoa. Pertzepzioaren garapena: zentzumenak garatzeko jarduerak eta espazioak. Psikomotrizitatea eta bere funtzio globalizatailea garapen kognitibo, afektibo eta motorrean: gorputzaren eskema eta bere eboluzioa, jarreraren kontrola, lateralitatea.

12. Garapen sozioafektiboa. Nortasunaren garapena: identitatea, autonomia eta autoestimua. Indibidualizazioa eta sozializazioa.

13. Hizkuntzaren garapena. 0 eta 3 urte bitarteko haurren adierazpena eta komunikazioa. Hizkuntza eta pentsamendua. Ulermenaren eta adierazpenaren bilakaera.

14. Familiekiko esku-hartzea. Familiaren parte-hartzea haur-eskolako hezkuntza-lanean. Komunikazio- eta lankidetzak. Gurasoekin bilerak: helburuak, plangintza eta balorazioa.

15. Autonomia eta osasuna: haurren lehen mailako premiak. Autonomia pertsonaleko ohituren entrenamendua eta ebaluazioa. Elikadura, esfinterren kontrola, loa, garbitasuna, jantziak. Bazkalordua hezkuntza-une gisa. Haurren atsedena.

16. Jolasa haurren garapen orokorrean. Jolasa baliabide didaktiko gisa. Haur-jolasaren bilakaera. Joko heuristikoa. Jolas eta jostailu motak. Jolasa errazten duten materialak eta baliabideak. Hezitzailearen zeregina jokoan. Jolasguneak eta jolastokia. Giro ludikoak sortzea.

17. Espazioak eta denborak antolatzea eta ebaluatzea. Eguneroko erritmoak eta errutinak. Antolaketa- eta denbora-banaketa-ereduak: jarduera indibidualak eta kolektiboak. Espazioak antolatzea. Txokoak, jolasguneak eta atsedenlekuak.

18. Tailerrak, haurren interesean eta jardueran oinarritutako metodologia gisa. Adierazpen artistikoa: teknikak eta baliabideak. Adierazpen artistikoaren bilakaera haurrengan. Arte-hizkuntzaren oinarritzko elementuak.

19. Eskola Berria eta Decroly, Montessori, Freinet eta Pestalozziaren ideiak. Abangoardiako mugimendu pedagogikoak: Vigotski, Bruner, Ausubel eta Emmi Pikler. Loris Malaguzziaren pedagogia, Reggio Emiliako (Italia) udal haur-eskolei aplikatuta. Korrante psikopedagogiko nagusien eragina haur-hezkuntzan.

## II. ERANSKINA - ESKABIDE EREDUA

Izen-abizenak:

NAN edo agiri baliokidea:

Jaioteguna:

Helbidea:

Telefonia:

Posta elektronikoa:

### AZALTZEN DUT:

.- HAUR HEZITZAILE lanpostua betetzeko izangaien zerrenda hautaproben bidez eratzeko deialdian onartzea eskatzen dudala, Baztango Udalaren jabetzakoa den Lixura Baztan SL udal merkataritza-sozietatean sortzen diren beharrak betetzeko.

.- Deialdiko oinarrietan eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituela, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagokionez.

.- Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkezten ditudala <sup>(1)</sup> (markatu dagokiona):

- Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia (edo izangaiaren nortasuna eta nazionalitatea egiaztatzen duen agiri baliokidearena, eta, hala badagokio, deialdiaren 3.1.a) oinarrian eskatzen diren nazionalitate- eta ahaidetasun-betekizunena).
- Eskatzen den titulazio akademikoaren fotokopia (Haur Hezkuntzako goi-mailako teknikariaren titulua /Haur Hezkuntzako maisu-maistraren lanbidean aritzeko gaitzen duen graduako titulua / Haur Hezkuntzako espezialitateko maisu-maistraren titulua edo haur-hezkuntzako maisu-maistraren lanbidean jarduteko gaitzen duen titulu baliokidea).
- C1 mailako (EGA edo baliokidea) euskarazko gaitasun-tituluaren fotokopia.
- Deialdiaren oinarrietako 7.3.2 puntuan adierazitako merezimenduen fotokopia, hala badagokio.

<sup>(1)</sup> Oharra: agiri horiek aurkezten ez dituztenak, hala badagokio, ez dira deialdian onartuko, eta beren jarduera guztiak baliogabetuko dira, parte hartzeko eskabidean faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizunari kalterik egin gabe.

Horrenbestez, iragarritako deialdian onartu izatea **ESKATZEN DUT**.

.....n, 20.....ko .....(a)ren ..... (e)an

Sinadura

### III. ERANSKINA

#### LAN POLTSAREN ARAUAK

##### **Oposizioaldia gainditu duten plaza gabekoen zerrenda.**

Zerrenda hauek osatuko dira proba guztiak gainditu arren, lanposturik lortzen ez duten izangaiekin.

Proba guztiak gainditu arren, lanpostua lortzen ez duten izangaien zerrenda hauetan lehentasuna finkatzeko, sartzeko hautapen prozesuan lortutako puntuazioari erreparatuko zaio, handienetik txikienera. Berdinketarik izanez gero, lanpostua udalak egiten duen zozketaren bidez trenkatuko da.

Alde baterako kontratazioaren kudeaketa

Deiak egiteko arau orokorrak.

1. Izangaiekin harremanetan jartzeko telefono zenbaki bat, bederen, eman beharko dute, baita helbide elektronikoa ere, harremanetarako bertze telefono zenbaki batzuk ere eman baditzakete ere. Informazio hori etengabe eguneratua eduki behar dute.

2. Izangaiekin harremanetan jartzeko honela jokatu da:

–Kontratazioa presazkoa ez bada, izangaiari deitzeko lau saiakera egingen dira 2 egunetan.

–Lanpostuan gehienez ere bi egunetan hasi behar bada, deitzeko bi saiakera egingen dira egun berean, tartean gutxienez ere 2 ordu utzita.

–Lanpostuan gehienez ere 24 orduren buruan hasi behar bada, izangai guztiei segidan deituko zaie, une horretan kontratazio zerrendan duten hurrenkeraren arabera, proposatutako kontratua onartzeko prest dagoen izangaia lortu arte.

3. Izangaia lortzeko lehen saioa telefonoz deituta egingen da, eta bigarrena, beharrezkoa balitz, mezu elektronikoa bidalita.

4. Betiere, dei bakoitza artxibo batean jasoko da, hura zer egoeratan, zer egunetan eta zer ordutan egin den adieraziz. Langileen ordezkariak sarbide zuzena izanen dute artxibo horretan.

5. Izangai batekin harremanetan jartzetik ez bada, zerrendan hurrengo denari deituko zaio, harik eta eskaintzen diren lanpostu guztiak bete arte. Harremanetan jartzetik izan ez duten izangaiek zerrendan zuten postuari eutsiko diote.

6. Izangai batekin harremanetan jarri eta kontratatzeko eskaintza eginez gero, erantzuten ez badu, uko egiten diola ondorioztatuko da eta.

7. Kontratu bat onartzen duten izangaiei ez zaie bertze lanpostu batean aritzeko kontraturik eskainiko, non eta ez den 6 hilabete baino gehiagoko kontratueterako edo lanpostu hutsak betetzeko, edo lanaldi handiagoa eskaintzeko.

Deietarako orokorrean ezarritakoa deusetan ukitu gabe, izangai bat aldi baterako kontratu baten bidez lanpostu batean aritu bada eta, kontratu hori bukatu eta hurrengo 15 eguneko epearen barnean, lanpostu berdintsua aldi baterako betetzea baimentzen bada, Administrazioak izangai berari eskainiko dio kontratua, betiere dei egiten zaion momentuan baldintza hauek betetzen badira:

a) Deia egiten den momentuan indarra duen zerrenda batean egotea izangaia.

b) Kontratuaren bukaeraren arrazoia ez izatea hari uko egin izana.

Izangairen batek eskaini zaion lanpostuari uko egiten baldin badio, zerrendatik at geldituko da, ondoko egoera batean dagoela frogatu ezean:

a) Indarrean dagoen izendapen, kontratu administratibo edo lan kontratu batengatik horretara behartua egotea.

b) Aldi baterako ezintasun egoeran izatea edo haurra izan edo adoptatzeagatik lizentzia izatea.

c) 3 urte baino gutxiagoko semea edo alaba, norberak izandakoa zein adoptatua, zaindu beharrean egotea. Arrazoi hori dela kausa kontratu bati uko egiten dioten izangaia ez dira berriz eskuragarri egonen, harik eta kontratuari uko egin zioten egunetik gutxienez hilabete bat iragan arte, salbu eta hura eragin zuen arrazoia lehenago desagertzen bada.

d) Zaindu behar badu bigarren gradura arteko odol edo ezkontza bidezko ahaide bat, adina, istripua edo eritasuna dela kausa bere burua ezin gobernatu duena. Arrazoi hori dela kausa kontratu bati uko egiten dioten izangaia ez dira berriz eskuragarri egonen, harik eta kontratuari uko egin zioten egunetik gutxienez hilabete bat iragan arte, salbu eta hura eragin zuen arrazoia lehenago desagertzen bada.

e) Izangaia ezkondu berria edo, Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Legearen arabera, parekatutako egoeran sartu berria izatea, eskaintako kontratuaren hasiera eguna bikotea eratu ondoko edo eratu aitzineko hamabortz egun naturalean bada.

f) Ezgaitasunen bat behar bezala onartua izatea eta ezgaitasunaren ezaugarriak bateraezinek izatea eskaintzen zaion lanpostuaren ezaugarri bereziekin.

Kasu guztietan agiri bidez frogatu behar da badela arrazoi bat, 15 egun naturaleko epean, ukoaren lanpostua eskaintzen den egunaren biharamunetik hasita. Halakoetan zerrendan

dauden toki berean jarraituko dute, "ez eskuragarri". Hala egin ezean, lanpostuari uko egitea justifikaziorik gabekotzat joko da.

Zerrendetatik baztertzea.

Deia eragiten duen zerrendatik baztertuko dira ondoko egoera hauetako batean dauden izangaiak:

- a) Eskaintako lanpostuari arrazoirik gabe uko egitea.
- b) Dei egin eta lanpostua onartu ondotik, kontratua ez sinatzea, izangaiari egotzi beharreko arrazoiengatik.
- c) Probaldia ez gainditzea, betiere zerbitzuaren arduradunaren txosten arrazoitua eta langileen ordezkarietara adostasuna badaude.
- d) Sinatutako kontratuari uko egitea.
- e) Urtebeteko epean izangaiarekin harremanetan jartzea ezinezkoa izatea, hark emandako telefonoaren edo helbide elektronikoaren bidez kontratatzekeo deiak behin eta berriz eginda ere.
- f) Lanpostua bertan behera uztea.
- g) Kontratua amaitzea diziplina espediente baten tramitazioaren ondorioz, amaiera onesten duen ebazpen irmo batekin bururatzen bada.
- h) Kontratua amaitzea gerora sortutako arrazoiak direla kausa, hain zuzen, kontratatzen den langilea lanpostuan aritzeko gaitasun edo egokitzapen faltagatik, horrek lanpostuak dituen eginkizunak eraginkortasunez betetzea galarazten duen errendimendu eskasa badakar. Betiere, zerbitzuaren arduradunaren txosten arrazoitua eta langileen ordezkarietara adostasuna egon behar dira.